# EDITORIAL

## Artikuluei-buruzko lehiaketa

*PYRENAIKAK artikuluei buruz lehiaketa bat antolatzen duen laugarren urtea da —etenik gabe—, diapositibei buruzko beste bataz gain. 1982gn. urtean gasi zen Pirineoak zirela eta, Euskal Herriko mendiak hurrengo, Iberiar Penintsulakoak ondoren, eta negu-mendizaletasuna azkenik. Lehiaketa sendotu egin da eta, urtaroetan zehar, aldizkariaren prozeduraren ohiturazko mekanikaren zati bat bihurtu da, bere deialdi-dinamika, ebazpen, sari-banaketa eta argitarapenaren bidez.*

*Lehenengo lehiaketa bultzatu zuten helburuek ondorengo lehiaketak ere justifikatu dituzte: Lehenengo eta behin,* atalak betetzea, *hau da, lankidetza lortzea aldizkariaren irakurleari —azken finean E.H.M.E.ko federatuari— interesatzen zaizkion gaietarako, hauek gaiok, berez, ez bait dira horrenbeste betetzen. Bigarrenik,* idazketa-era berriak bultzatzea: *mendi-gaien tratamenduarekiko beste planteamendu batzuk eskaintzen dituzten tankera originalak. Eta hirugarrenik, materiala biltzea* ale monografikoak *eskaintzeko.*

*Gure ustez, emaitek aurrez ikusitako helburuak betetzen dituzte. Lehenengo helburuari —hutsuneak betetzeari— dagokionez, lehiaketek fondo bat sortzen lagundu dute, eta berari esker uste dugu aldizkariko atal ezberdinen gutxienezko edukia garantizatuta dugula. Berriro ere egiaztatzen da eskergaiztoko gai batzuk badaudela, hots, igoera urrunak eta zailak idazteko joera handiagoa dugula geure mendiei buruzko kondaketa sakonsakon egitekoa baino. Ez gara baina gehiago aurkituko azken orduan gai konkretu bat nola edo hala bilatzen.*

*Idazteko erak ere berriztatzen lagundu dute lehiaketek. Esku berriak sartzeak —euretariko batzuk jarraitu dute laguntzen— eta elkar aurkezteak haize berri bat eman diote artikuluak egiteko erari. Esate baterako, aldizkariaren azken aleetan errepikatzen den eskema, eta batez ere azken lehiaketan: saltu-eskemak denboran, ihardueran eta bibentziak idaztean bertan ere.*

*Lehenengo lehiaketekin ale monografikoak egin genituen, baina gero pentsatu da onuragarriagoa dela lehiaketa bakoitzeko sari eta aipamen bereziak ale batzuetan zehar banantzea, aldizkariaren irakurketari arintasun gehiago eman dakion.*

*Guzti honengatik, gure ustez, experientzia baikorra da eta eskatutako artikuluak eta berezko laguntzak urteroko lehiaketen emaitzez osatzen jarraituko dugu. Adibidez, ale honetan laugarren lehiaketako sarien aukera bat aurkezten dugu: «mendia neguan»; gauza onak daude. Hor dituzue.*

## Concursos de artículos

ES el cuarto año consecutivo que Pyrenaica organiza un concurso de artículos, junto a otro de diapositivas. Empezó el año 82 con el tema de Pirineos y siguieron luego las montañas de Euskal Herria, las de la Península Ibérica y el montañismo invernal. El concurso se ha consolidado, forma parte ya de la mecánica rutinaria del procedimiento de la revista, a lo largo de las estaciones, con su dinámica de convocatoria, resolución, reparto de premios y publicación.

Los objetivos que animaron el primer concurso han ido justificando los siguientes: en primer lugar, el *rellenar secciones,* es decir, conseguir colaboraciones de aquellos temas que interesan al lector de la revista —en definitiva al federado de la E.H.M.E.— y que menos cubiertos quedan espontáneamente. En segundo lugar, el promover *nuevas formas de redacción,* estilos originales que ofrezcan otros planteamientos al tratamiento de los temas montañeros. Y en tercer lugar, recopilar material para ofrecer *números monográficos.*

Podemos pensar que los resultados cumplen los objetivos previstos. En cuanto al primer objetivo cubrir huecos, los concursos han ayudado a crear un fondo que nos permite considerar que tenemos garantizado el contenido mínimo de las diversas secciones de la revista. Se confirma una vez más que hay temas más ingratos —por ejemplo, que estamos más inclinados a contar ascensiones lejanas o difíciles, que a trabajar a fondo relatos de nuestras montañas— pero ya no nos encontraremos a última hora buscando como sea un tema determinado.

También han ayudado los concursos a renovar el estilo. La entrada de nuevas plumas, algunas de las cuales han seguido luego colaborando, y la propia confrontación han dado un nuevo aire a la forma de hacer los artículos. Por ejemplo, el esquema que se repite en los últimos números de la revista y sobre todo, en el último concurso, de saltos en el tiempo, en la actividad o en el propio relatar de las vivencias.

Con los primeros concursos hicimos números monográficos, pero luego se ha considerado que es más provechoso repartir los premios y las menciones especiales de cada concurso, a lo largo de varios números, de modo que se dé más agilidad a la lectura de la revista.

Por todo esto pensamos que la experiencia es positiva y seguiremos complementando los artículos solicitados y las colaboraciones espontáneas, con los resultados de los concursos anuales. Por ejemplo, en este número presentamos una selección de los premios del cuarto concurso, «la montaña en invierno», que son cosas buenas. Ahí las tenéis.